

DEIALDIA / CONVOCATORIA

HEZKUNTZA BATZORDEA

COMISIÓN DE EDUCACIÓN

- **Eguna:** 2019/09/13
- **Ordua:** 09:30
- **Tokia:** 1. ARETOA

- **Día:** 13/09/2019
- **Hora:** 09:30
- **Lugar:** SALA 1

GAI ZERRENDA

ORDEN DEL DÍA

1. - Akta
2019ko ekainaren 17an, 18an eta 24an egindako bilkuren aktak irakurri eta, hala badagokio, onestea

1. - Acta
Lectura y aprobación, en su caso, de las actas de las sesiones celebradas los días 17, 18 y 24 de junio de 2019

2. - Legez besteko proposamena
Larrea ikastetxetik Barakaldora irekitako gizarte-heziketako esku-hartze inklusiborako proiektu pilotu aitzindaria ezartzeari buruz ([2019/2597](#))

2. - Proposición no de ley
Sobre implantación en el centro educativo de Larrea de un proyecto piloto pionero de intervención educativa y social inclusiva abierto a Barakaldo ([2019/2597](#))

- **Egilea:** Euskal Herria Bildu LT (EH Bildu LT)
- **Norentzat:** Hezkuntza Batzordea

- **Autor:** GP Euskal Herria Bildu (GP EH Bildu)
- **Para:** Comisión de Educación

([11\11\02\01\00592](#))

([11\11\02\01\00592](#))

3. - Legez besteko proposamena
Acex programa irakurketa-planarekin uztartuz hezkuntza-proiektuetan indartzeari buruz ([2019/2662](#))

3. - Proposición no de ley
Sobre el refuerzo del programa Acex en los proyectos educativos vinculándolo al plan de lectura ([2019/2662](#))

- **Egilea:** Euskal Herria Bildu LT (EH Bildu LT)
- **Norentzat:** Hezkuntza Batzordea

- **Autor:** GP Euskal Herria Bildu (GP EH Bildu)
- **Para:** Comisión de Educación

([11\11\02\01\00594](#))

([11\11\02\01\00594](#))

4. - Beste batzuk
Eskariak eta galderak

4. - Otros
Ruegos y preguntas

Eusko Legebiltzarra, 2019ko uztailaren 17a

Parlamento Vasco, 17 de julio de 2019



Larrea ikastetxetik Barakaldora irekitako gizarte-heziketako esku-hartze inklusiborako proiektu pilotu aitzindaria ezartzeari buruz (Izapidetzeko onartzea)
(11/11.02.01.00592)

Mahaiak, 2019ko maiatzaren 21eko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea, batzordean eztabaidatzeko, EH Bildu talde parlamentarioak egindako LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari eta Hezkuntza Batzordeari bidal dakielara eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitarara dadila.

Talde parlamentarioek, Ganberan indarrean dagoen Erregelamenduko 174.3 artikuluan adierazitakoari jarraituz, egoki irizitako zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte, argitalpen hau egin eta hurrengo zazpi egun baliadunen barruan, Mahaiari idazki arrazoitua bidaliz.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria
Bakartxo Tejeria Otermin**

Zioa

EH Bilduren ekimenez, martxoak 5ean, zenbait neurri onartu ziren Barakaldoko hezkuntza eremuari begirakoak (11\11\02\01\00502 espedientean jasoa), baina agerian geratzen ari da, horrez gain, beste neurri batzuk, eta premia gainera, ezinbestekoak direla.

EH Bildutik urteak daramazkigu azpimarratzen, Barakaldok duen egoera sozial ekonomiko anitz eta konplexuaren aurrean, udalerrian hezkuntza batzorde ahaldundua abian jartzeko beharra. Mahai horretatik abiatuta, Hezkuntza Sailarekin eta hezkuntza komunitate osoarekin elkarlanean, indarrean den eskola maparen azterketa sakon bat egiteko eta dauden beharrak zein erronkak behar bezala identifikatzeko.

EH Bilduren ekimenez pasa den urtarrilean Barakaldoko ikastetxe desberdinetara eginiko bisitetan, izan genuen aukera bertatik bertara kontrastatzeko dauden gabezia eta beharrak, eta, aldi berean, ikastetxeetako zuzendaritza eta irakasleen aldetik egiten ari ziren lan eskerga eta esfortzua, zituzten gabezi eta aurre egin beharreko errealitate konplexua dena delakoa izanik.

Agerikoa da inklusioa ezin dela soilik ikastetxetik landu, eta hiri mailan dagoen aniztasunari trataera egokia emateko, izan aniztasun ekonomikoa, soziala, hizkuntzarena, generoarena... aniztasunak mila aurpegi baititu, eta auzo mailan, hiri mailan, udal mailan arlo desberdinetatik modu bateratuan, koordinatuan egiten den lana funtsezkoa dela; funtsezkoak diren bezala enplegu politika, etxebizitza politika, zerbitzu sozialak eta abar.

Sobre implantación en el centro educativo de Larrea de un proyecto piloto pionero de intervención educativa y social inclusiva abierto a Barakaldo (Admisión a trámite)
(11/11.02.01.00592)

La Mesa, en su reunión del día 21 de mayo de 2019, acuerda admitir a trámite para su debate en comisión la PROPOSICIÓN NO DE LEY formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y a la Comisión de Educación, y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

Los grupos parlamentarios, conforme a lo dispuesto en el artículo 174.3 del vigente Reglamento de la Cámara, podrán presentar dentro de los siete días hábiles siguientes al de esta publicación las enmiendas que consideren pertinentes, mediante escrito motivado y dirigido a la Mesa.

**La presidenta del Parlamento Vasco
Bakartxo Tejeria Otermin**

Justificación

Por iniciativa de EH Bildu, el 5 de marzo se aprobaron algunas medidas relativas al ámbito de la educación (recogidas en el expediente 11\11\02\01\00502), pero está claro que, además de esas también son necesarias y prioritarias otras medidas.

En EH Bildu llevamos años recalando, ante la situación económica diversa y compleja de Barakaldo, la necesidad de poner en marcha en el municipio una comisión de educación empoderada, para, partiendo de esa mesa y en colaboración con el Departamento de Educación y toda la comunidad educativa, realizar un análisis profundo del mapa escolar que está en vigor e identificar como es debido las necesidades y los retos existentes.

En las visitas que realizamos en enero, por iniciativa de Bildu, a diferentes centros educativos de Barakaldo, tuvimos la oportunidad de contrastar in situ sus carencias y necesidades, y, al mismo tiempo, el inmenso trabajo y esfuerzo que están haciendo las direcciones y el profesorado de los centros educativos, sean cuales sean sus carencias y la realidad compleja a la que tienen que hacer frente.

Es obvio que la inclusión no se puede trabajar únicamente desde el centro educativo, y para dar un tratamiento adecuado a la diversidad que hay en el municipio, ya sea económica, social, lingüística, de género..., pues la diversidad tiene mil caras, y es fundamental el trabajo que se realiza de una manera unificada, coordinada, a nivel de barrio, a nivel municipal desde diferentes ámbitos; como son fundamentales la política de empleo, la política de vivienda, los servicios sociales, etc.



Gure Erkidegoko gizartea gero eta anitzagoa, konplexuagoa da, eta argi geratzen ari da hezkuntza alorrean orain arte eman den esku hartzea ez dela baliagarria ez eraginkorra dugun eta geratzeko etorri den gizarte berri horri erantzuteko. Agerian geratzen ari da, hezkuntza ulertzeko begirada aldatu beharra dugula, eta bestelako neurriak, esku hartzeak indarrean sartzeko premia dela, eskola auzoaren eta gizarte plural baten ispilu bilakatzeke.

Beraz, fenomeno hau ez da soilik Barakaldon gertatzen, baina errealitatea da Barakaldoko zenbait ikastetxeek pairatzen duten estigmatizazioa larria dela eta premia dela buelta ematen hastea, neurri eraginkorrek, Hezkuntza Sailak ikastetxeetako zuzendaritzari egiazko babesa emateko hezkuntza politika ausartak indarrean jarriaz. Badira, eredu izaten ari diren hainbat ekimen, esaterako estigmatizazio handia pairatzen duten ikastetxeak unibertsitate zehatz baten erreferente bilakatzea ("iman" proiektua), elkarrekin bestelako hezkuntza proiektu bat abiatuz; esku hartze komunitarioak, eta abar. Aniztasunaren kudeaketa komunitarioaren beste adibide bat dugu Vic-eko La Sinnia ikastetxea.

Kontua da, Barakaldon Larrea ikastetxeak pairatzen duen estigmatizazioa oso larria dela, irakasleek egiten duten ahaleginak-ahalegin. Beraiek bakarrik oso zaila delako gizarte mailan sufritzen duten isolamenduari buelta ematea.

Beraz, Barakaldoko egoerari buelta ematen hasteko, premia dela deritzogu gizarteari begira egoerarik ahulenean dagoen ikastetxetik hastea, esku hartze arduratsu, serio eta iraunkorarekin Hezkuntza Sailaren aldetik, modu horretan ikastetxeko irakasleek babesa eta aukera izan dezaten egunerokoan egiten diharduten lanak emaitzak emateko, eta urteetako egoerari buelta emateko, ikastetxeak izan beharko lukeen izen ona errekupeartzeko, Barakaldoko gainerako erakunde eta eragileekin elkarlanean.

LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA

Legebiltzarrak Hezkuntza Sailari eskatzen dio:

1. Barakaldoko ikastetxe publikoen izen ona lantzeko neurriak har ditzala.
2. Larrea ikastetxean abian jar dezala premia, inklusioa xede izango duen gizarte-heziketa esku hartze proiektu aitzindaria, horretarako ikastetxearen eta aipaturiko esku hartzeetan esperientziadun ekipoa dituen unibertsitatearekin hitzarmena sinatuz –HUEZI edo EHU–.

La sociedad de nuestra Comunidad Autónoma es cada vez más diversa, es más compleja, y está quedando claro que la intervención que se ha dado hasta ahora en el ámbito de la educación no es válida ni eficaz para responder a esa nueva sociedad que tenemos y que ha venido para quedarse. Está quedando claro que para entender la educación hay que cambiar la mirada, y que es prioritario poner en vigor otras medidas e intervenciones, para que la escuela se convierta en un espejo del barrio y de una sociedad plural.

Por lo tanto, este fenómeno no sucede solamente en Barakaldo, pero la realidad es que algunos centros educativos de Barakaldo padecen una grave estigmatización, y es necesario empezar a dar la vuelta, con medidas eficaces, poniendo en vigor el Departamento de Educación políticas valientes para dar una verdadera protección a la dirección de los centros educativos. Hay algunas iniciativas que están sirviendo de modelo, por ejemplo, que un centro que está padeciendo una gran estigmatización se convierta en referente de una universidad concreta (un proyecto "imán"), poniendo en marcha conjuntamente un proyecto educativo diferente, intervenciones comunitarias, etc. El centro La Sinnia de Vic es otro ejemplo de gestión comunitaria de la diversidad.

La cuestión es que la estigmatización que padece el centro educativo Larrea en Barakaldo es muy grave, a pesar de los esfuerzos que realiza el profesorado. Porque es muy difícil que ellos solos le den la vuelta al aislamiento que padecen a nivel social.

Por lo tanto, para empezar a dar la vuelta a la situación de Barakaldo, consideramos que es necesario empezar por el centro que está en situación más débil de cara a la sociedad, con intervenciones responsables, serias y permanentes por parte del Departamento de Educación, para que de esa manera el profesorado del centro tenga el apoyo y la oportunidad para que el trabajo que realizan a diario dé sus frutos, para recuperar el buen nombre que debería tener el centro, en colaboración con las demás instituciones y agentes de Barakaldo.

PROPOSICIÓN NO DE LEY

El Parlamento insta al Departamento de Educación a que:

1. Adopte medidas para trabajar el buen nombre de los centros públicos de Barakaldo.
2. Establezca con urgencia en el centro educativo Larrea un proyecto pionero de intervención educativa social, firmando para ello un convenio entre el centro educativo y la universidad que disponga de equipos con experiencia en las mencionadas intervenciones –HUEZI o UPV–.



3. Halaber, aztertu dezala Larreako ikastetxeak Catalunyan urteetako ibilbidea duen "magnet" sarearekin praktika onak konpartitzeko edo eta elkarlanerako izan ditzakeen aukerak.
4. Ikastetxe guztietako komunitateak ordezkatuak egongo diren Barakaldo mailako Hezkuntza Mahaia sortzea, ikastetxeetako zuzendaritzekin mahai iraunkorra sortuz, proiektu amankomunak elkarlanean eraikitzeko, euskara, aniztasuna, inklusioa, hezkidetzaren bizikidetzaren inguruan, auzo kohesionatu eta dinamikoetatik herri inklusiboagoa xede izanda.

Euskal Herrian, 2019ko maiatzaren 8an

Rebeka Ubera Aranzeta, EH Bildu taldeko legebiltzarkidea eta bozeramaileordea

3. Estudie, asimismo, las posibilidades que pueda tener el centro educativo Larrea de colaborar o compartir las buenas prácticas con la red "magnet" que tiene un recorrido de años en Cataluña.
4. Cree a nivel de Barakaldo la Mesa de Educación en la que estén representadas las comunidades de todos los centros educativos, creando una mesa permanente con las direcciones de los centros, para construir conjuntamente proyectos comunes en torno al euskera, la diversidad, la inclusión, la coeducación y la convivencia, teniendo como objetivo un municipio más inclusivo con barrios cohesionados y dinámicos.

Euskal Herria, 8 de mayo de 2019

Rebeka Ubera Aranzeta, parlamentaria y portavoz suplente del grupo EH Bildu



Sobre implantación en el centro educativo de Larrea de un proyecto piloto pionero de intervención educativa y social inclusiva abierto a Barakaldo (Enmiendas)
(11/11.02.01.00592)

La Mesa, en su reunión del día 11 de junio de 2019, acuerda admitir a trámite las siguientes enmiendas presentadas a la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, y ordena su remisión a la Comisión de Educación y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

La presidenta del Parlamento Vasco
Bakartxo Tejeria Otermin

GRUPO PARLAMENTARIO ELKARREKIN PODEMOS

ENMIENDA DE TOTALIDAD

- "1. Realizar, junto a la comunidad educativa y el Ayuntamiento de Barakaldo, una campaña de sensibilización sobre el desarrollo y la calidad de la educación pública en dicho municipio.
2. Crear a nivel de Barakaldo una Mesa de Educación en la que estén representadas las comunidades de todos los centros educativos, creando una mesa permanente con las direcciones de los centros, para construir conjuntamente proyectos comunes en torno al euskera, la diversidad, la inclusión, la coeducación y la convivencia, teniendo como objetivo un municipio más inclusivo con barrios cohesionados y dinámicos".

GRUPO PARLAMENTARIO POPULAR VASCO

ENMIENDA DE TOTALIDAD

"El Parlamento Vasco insta al Departamento de Educación a asegurar a aquellos centros, sea cual sea su titularidad, con un alto porcentaje de inmigrantes o de alumnos con dificultades de aprendizaje derivados de desventajas sociales y económicas, los recursos idóneos y el refuerzo educativo que les permita alcanzar mayores niveles de éxito escolar.

El Parlamento Vasco insta al Departamento de Educación a garantizar al centro educativo Larrea de Barakaldo los recursos que sean necesarios para avanzar en la mejora de su calidad educativa, considerándolo centro prioritario del sistema, estableciendo programas de innovación adaptados a sus necesidades y teniendo en cuenta su proyecto educativo de centro".

EUZKO ABERTZALEAK ETA EUSKAL SOZIALISTAK
TALDE PARLAMENTARIOAK

OSOKO ZUZENKETA

Larrea ikastetxetik Barakaldora irekitako gizarte-heziketako esku-hartze inklusiborako proiektu piloto aitzindaria ezartzeari buruz (Zuzenketak)
(11/11.02.01.00592)

Mahaia, 2019ko ekainaren 11ko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea EH Bildu talde parlamentarioaren legez besteko proposamenari aurkeztutako ondoko zuzenketak, eta agindu du Hezkuntza Batzordeari bidal dakizkiola eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratu daitezela.

Eusko Legebiltzarreko lehendakaria
Bakartxo Tejeria Otermin

ELKARREKIN PODEMOS TALDE
PARLAMENTARIOA

OSOKO ZUZENKETA

- "1. Egin dezala, hezkuntza-komunitatearekin eta Barakaldoko Udalarekin batera, sentsibilizazio-kampaina bat udalerrri horretako hezkuntza publikoaren garapen eta kalitateari buruz.
2. Barakaldo mailan Hezkuntza Mahaia sor dezala, zeinetan ikastetxe guztietako komunitateak ordezkaturata egongo diren, mahai egonkorra sortuz ikastetxeetako zuzendaritzekin, elkarrekin proiektu komunak eraikitzeko euskara, aniztasun, inklusio, hezikidetzat eta elkarbizitzaren inguruan; horren helburua izango da udalerria inklusiboagoa izatea auzo kohesionatu eta dinamikoekin".

EUSKAL TALDE PARLAMENTARIO POPULARRA

OSOKO ZUZENKETA

"Eusko Legebiltzarrak Hezkuntza Sailari eskatzen dio ezen eskola-arrakasta handiagoa lortzea ahalbidetuko dieten baliabide egokiak eta hezkuntza-errefortzua ziurtatu diezazkiela etorkinen ehuneko handiko edo desabantaila sozial eta ekonomikoetatik eratorrita ikasteko zailtasunak dituzten ikasle askoko ikastetxeei, titulartasuna edozein izanda ere.

Eusko Legebiltzarrak Hezkuntza Sailari eskatzen dio Barakaldoko Larrea ikastetxeari beharrezko baliabideak bermatu diezazkiola, bere hezkuntza-kalitatea hobetzen jarraitu dezan, sistemako lehentasuneko ikastetxetzat hartuta, horren beharretara egokitutako berrikuntza-programak ezarrita eta ikastetxeko hezkuntza-proiektua kontuan hartuta".

GRUPOS PARLAMENTARIOS NACIONALISTAS
VASCOS Y SOCIALISTAS VASCOS

ENMIENDA DE TOTALIDAD



"Eusko Legebiltzarrak Hezkuntza Sailari eskatzen dio:

1. Jarrai dezala errefortzu- eta konpentsazio-neurriak hartzen konplexutasun handieneko ikastetxe publikoetan, erantzun egokia sustatzeko aniztasunaren eta ikastetxeko ikasleen premia espezifikoaren aurrean.
2. Larrea HLHIren kasu zehatzean, jarrai dezala aniztasunaren arretarako Hamaika Esku programak garatzen, bere ikasleen gaitasunen garapen-maila hobetzen laguntzeko, eta azter dezala ikastetxeko irakasleak indartzeko beharra, hala badagokio, hezkuntza-premien indizearen aplikazioaren arabera.
3. Landu ditzala, Barakaldoko Udalarekin batera, dauden aukera anitzak (Magnet gizarte-eta hezkuntza-proiektua, besteak beste), udalerriko ikastetxeei ematen zaien erantzuna hobetzeko, inplikaturako erakundearen erantzunkidetasunetik".

"El Parlamento Vasco insta al Departamento de Educación a:

1. Continuar adoptando medidas de refuerzo y compensación en aquellos centros públicos de mayor complejidad con la finalidad de propiciar una respuesta adecuada ante la diversidad y las necesidades específicas del alumnado del centro.
2. En el caso concreto del CEIP Larrea, seguir desarrollando los programas de atención a la diversidad Hamaika Esku a fin de favorecer la mejora del nivel de desarrollo de las competencias de su alumnado, así como analizar la necesidad de reforzar el personal docente en el centro en función de la aplicación, en su caso, del índice de necesidades educativas.
3. A trabajar, junto con el Ayuntamiento de Barakaldo, las diversas opciones posibles (proyecto socioeducativo Magnet, entre otros) para mejorar la respuesta a los centros del municipio desde la corresponsabilidad entre las instituciones implicadas".

Acex programa irakurketa-planarekin uztartuz hezkuntza-proiektuetan indartzeari buruz
(Izapidetzeko onartzea)
(11/11.02.01.00594)

Mahaiak, 2019ko maiatzaren 21eko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea, batzordean eztabaidatzeko, EH Bildu talde parlamentarioak egindako LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari eta Hezkuntza Batzordeari bidal dakiela eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

Talde parlamentarioek, Ganberan indarrean dagoen Erregelamenduko 174.3 artikuluan adierazitakoari jarraituz, egoki irizitako zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte, argitalpen hau egin eta hurrengo zazpi egun baliiodunen barruan, Mahaiari idazki arrazoitua bidaliz.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria
Bakartxo Tejeria Otermin**

Zioa

Badira urteak Hezkuntza Sailak Acex deituriko proiektuak, alegia, eskola-liburutegiak abian jarri zituela; baina azken urteotan agerikoa da Hezkuntza Sailak erabakia hartua duela programa hori desagerrarazteko. Izan ere, programa edo proiektu horietan zeuden irakasleek erretiroa hartzearekin batera, proiektua irakasle gabe geratzen da; beraz, ikastetxeetan zailtasunak hasten dira proiektua bizirik mantentzeko.

Egia da programa hori indarrean jartzearen arrazoi nagusia izan zela Hezkuntza Sailak profilik gabeko irakasleekin zuen arazoa konpontzea, eta ez hainbeste ikastetxeetan zegoen hezkuntza hobetzeko beharra asetzea. Baina egia da, halaber, aipaturiko programak, ikastetxe gehienetan, izugarriko garrantzia hartu duela hezkuntza-proiektuan eta ikastetxeko komunitatearen egunerokoan: irakurketaren sustapenean, kulturaren hedapenean, ikastetxeko eta auzoko kohesioan, ikasle eta familia guztien aukera-berdintasuna lantzerako orduan zein kulturarako sarbidea errazterakoan. Kontuan izan behar dugu eskola-liburutegi horiek ateak zabalik zizutela eskolaz kanpoko ordutegian, horrek dakartzan ondorio positibo guztiekin, bai ikastetxeko familia guztientzat, bai ikastetxeko komunitatearen kohesioa eta inklusioa lantzerako orduan.

Baina, azken urteotan, Hezkuntza Saila aipaturiko eskola-liburutegietako arduradunen erretiroak aprobetxatzen ari da Acex programaren baitan zeuden lanpostuak amortizatzen.

Sobre el refuerzo del programa Acex en los proyectos educativos vinculándolo al plan de lectura (Admisión a trámite)
(11/11.02.01.00594)

La Mesa, en su reunión del día 21 de mayo de 2019, acuerda admitir a trámite para su debate en comisión la PROPOSICIÓN NO DE LEY formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y a la Comisión de Educación, y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

Los grupos parlamentarios, conforme a lo dispuesto en el artículo 174.3 del vigente Reglamento de la Cámara, podrán presentar dentro de los siete días hábiles siguientes al de esta publicación las enmiendas que consideren pertinentes, mediante escrito motivado y dirigido a la Mesa.

**La presidenta del Parlamento Vasco
Bakartxo Tejeria Otermin**

Justificación

Hace años que el Departamento de Educación puso en marcha los proyectos denominados Acex, es decir, las bibliotecas escolares; pero en los últimos años se ha puesto en evidencia que el Departamento de Educación ha tomado la decisión de eliminar dicho programa. En efecto, con la jubilación del profesorado que participaba en dichos programas o proyectos, estos están quedando sin profesorado; por tanto, las escuelas empiezan a tener dificultades para mantener vivo el proyecto.

Es cierto que el principal motivo por el que se puso en marcha ese proyecto fue el de resolver el problema que tenía el Departamento de Educación con el profesorado sin perfil, no tanto satisfacer la necesidad de mejorar la educación que se impartía en las escuelas. Pero es cierto también que el mencionado programa, en la mayoría de los centros, ha adquirido una importancia capital en el proyecto educativo y en el día a día de la comunidad escolar: en el fomento de la lectura, en la expansión de la cultura, en la cohesión del centro y del barrio, a la hora de trabajar en la igualdad de oportunidades de todo el alumnado y las familias y a la hora de facilitar el acceso a la cultura. Debemos tener en cuenta que dichas bibliotecas escolares tenían las puertas abiertas en horario no lectivo, con todas las consecuencias positivas que ello conlleva, tanto para todas las familias del centro como a la hora de trabajar la cohesión y la inclusión de la comunidad escolar.

Pero, en los últimos años, el Departamento de Educación está aprovechando las jubilaciones del personal responsable de las bibliotecas escolares para amortizar los puestos de trabajo ligados al programa Acex.



Alabaina, ulergaitza egin zaigu Hezkuntza Saila aldebakartasunez eta inolako eztabaidarik gabe praktikara eramaten ari den erabakia, are gehiago azken urteetako ebaluazio diagnostikoetan eta adituen beste hainbat txostenetan behin eta berriro irakurketa hobetzeko beharra azpimarratzen ari den honetan, eta, gainera, Hezkuntza Saila irakurketa-planak bultzatzen ari den honetan. Beraz, nola uler daiteke eskola-liburutegiak, hots, Acex proiektua ixteko erabakia eta, aldi berean, planak bultzatzearena? Planek ba al dute zentzurik hezkuntza-proiektuan modu esanguratsuan integratu gabe? Nola garatu daitezke planak baliabiderik gabe? Acex programak ez al zuen irakurketa-planek baino modu osatuagoan garatzen irakurketa, ikasleen interes eta motibazioetatik abiatuta? Ez al dira osagarriak biak ala biak?

Zergatik ez ditu txertatzen Hezkuntza Sailak "Partekatuz Ikasi" sarean Acex proiektu aitzindari, berritzaile eta oso landuak dituzten ikastetxeak? Modu eraikitzailea izan daiteke irakurketa, ulermena eta horien baitako konpetenziak lantzeko proiektuak ezagutu eta praktikara eramateko gainerako ikastetxeetan, formakuntzarekin, baliabideekin, eta urteetako lana, esperientziak eta ibilbideak balioetsiz.

LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA

Legebiltzarrak Hezkuntza Sailari eskatzen dio:

1. Egin dezala apustua Acex deituriko eskola-liburutegien proiektuak indarrean jarraitzeko. Horretarako, proiektuaren irakasle arduradunaren lanpostuak mantendu behar ditu, eta azken urteotan amortizatuak izan diren lanpostuak berreskuratu, ikastetxeetako eskola-liburutegiak berriro ere zabalik egon daitezen eskolaz kanpoko ordutegietan.
2. Uztar ditzala Acex programa eta irakurketa-planak, molde esanguratsu eta koherentean lan egiteko ikastetxeko hezkuntza-proiektuaren baitan, ikaslea erdigunean kokatuaz.
3. Sar ditzala "Partekatuz Ikasi" sarean eskola-liburutegi aitzindari, berritzaile eta sendoak izan dituzten ikastetxeak, gainerako ikastetxeekin jardunbide egokiak partekatu eta zabaltzeko.

Euskal Herrian, 2019ko maiatzaren 8an

Rebeka Ubera Aranzeta, EH Bildu taldeko legebiltzarkidea eta bozeramaileordea

Sin embargo, nos ha resultado incomprensible la decisión que el Departamento de Educación está llevando a la práctica unilateralmente y sin ningún debate, más aún cuando en las evaluaciones diagnósticas de los últimos años y en otros muchos informes de expertos se está reiterando la necesidad de mejorar la lectura, y, además, cuando el Departamento de Educación está impulsando planes de lectura. Por tanto, ¿cómo se puede entender la decisión de cerrar las bibliotecas escolares, es decir, el proyecto Acex, y, al mismo tiempo, impulsar planes? ¿Tienen sentido los planes si no se integran de manera significativa en el proyecto educativo? ¿Cómo se pueden desarrollar planes sin recursos? ¿El programa Acex no desarrollaba la lectura de una manera más completa que los planes de lectura, partiendo de los intereses y motivaciones del alumnado? ¿No son complementarios ambos?

¿Por qué el Departamento de Educación no integra en la red "Partekatuz Ikasi" los centros que tienen proyectos Acex pioneros, innovadores y muy trabajados? Puede ser una manera constructiva de conocer y llevar a la práctica en el resto de centros los proyectos que trabajen la lectura, la comprensión y sus correspondientes competencias, con formación, con recursos, y poniendo en valor el trabajo, las experiencias y las trayectorias de años.

PROPOSICIÓN NO DE LEY

El Parlamento insta al Departamento de Educación a:

1. Apostar por que el proyecto de las bibliotecas escolares, denominado Acex, continúe en marcha. Para ello, debe mantener los puestos de trabajo del profesorado responsable del proyecto y recuperar los puestos de trabajo que han sido amortizados en los últimos años, para que las bibliotecas escolares de los centros vuelvan a estar abiertas en horario no lectivo.
2. Compaginar el programa Acex con los planes de lectura, para trabajar de manera significativa y coherente dentro del proyecto educativo del colegio, poniendo al alumno en el centro.
3. Integrar en la red "Partekatuz Ikasi" los centros que cuenten con bibliotecas escolares pioneras, innovadoras y potentes, para compartir y difundir las buenas prácticas con otros centros.

Euskal Herria, 8 de mayo de 2019

Rebeka Ubera Aranzeta, parlamentaria y portavoz suplente del grupo EH Bildu



Sobre el refuerzo del programa Acex en los proyectos educativos vinculándolo al plan de lectura (Enmiendas)
(11/11.02.01.00594)

La Mesa, en su reunión del día 11 de junio de 2019, acuerda admitir a trámite las siguientes enmiendas presentadas a la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, y ordena su remisión a la Comisión de Educación y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

La presidenta del Parlamento Vasco
Bakartxo Tejeria Otermin

GRUPO PARLAMENTARIO ELKARREKIN PODEMOS

ENMIENDA DE TOTALIDAD

- "1. El Parlamento Vasco insta al Departamento de Educación a apostar por que el proyecto de las bibliotecas escolares, denominado Acex, continúe en marcha. Para ello, debe mantener los puestos de trabajo del profesorado responsable del proyecto y recuperar los puestos de trabajo que han sido amortizados en los últimos años, para que las bibliotecas escolares de los centros vuelvan a estar abiertas en horario no lectivo.
2. El Parlamento Vasco insta al Departamento de Educación a compaginar el programa Acex con los planes de lectura, para trabajar de manera significativa y coherente dentro del proyecto educativo del colegio, poniendo al alumnado en el centro.
3. El Parlamento Vasco insta al Departamento de Educación a que presente en el plazo de un mes una propuesta de recuperación de dicho programa, de cara a que comience a implementarse en el curso 2019/2020".

EUSKO ABERTZALEAK ETA EUSKAL SOZIALISTAK
TALDE PARLAMENTARIOAK

OSOKO ZUZENKETA

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eskatzen dio:

1. Jarrai dezala irakurketa-plana jasotzen duen Irakurgunea tresna sustatzen, irakurmen-gaitasunaren garapena bultzatzeko eta ikasleen irakurzaletasuna sustatzeko, gizartearen premia eta eskari berrietara egokitzuz.
2. Jarrai dezala apustu egiten ikastetxeen hizkuntza-proiektuan kokatutako plan horiek hezkuntza-komunitate osoa inplikatu dezaten

Acex programa irakurketa-planarekin uztartuz hezkuntza-proiektuetan indartzeari buruz (Zuzenketak)
(11/11.02.01.00594)

Mahaiak, 2019ko ekainaren 11ko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea EH Bildu talde parlamentarioaren legez besteko proposamenari aurkeztutako ondoko zuzenketak, eta agindu du Hezkuntza Batzordeari bidal dakizkiola eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratu daitezela.

Eusko Legebiltzarreko lehendakaria
Bakartxo Tejeria Otermin

ELKARREKIN PODEMOS TALDE
PARLAMENTARIOA

OSOKO ZUZENKETA

- "1. Eusko Legebiltzarrak Hezkuntza Sailari eskatzen dio Acex deituriko eskola-liburutegien proiektuak indarrean jarraitzearen alde egin dezala. Horretarako, proiektuaren irakasle arduradunen lanpostuak mantendu behar ditu, eta azken urteotan amortizatuak izan diren lanpostuak berreskuratu, ikastetxeetako eskola-liburutegiak berriro ere zabalik egon daitezen eskolaz kanpoko ordutegian.
2. Eusko Legebiltzarrak Hezkuntza Sailari eskatzen dio uztar ditzala Acex programa eta irakurketa-planak, modu esanguratsu eta koherentean lan egiteko ikastetxeko hezkuntza-proiektuaren baitan, ikasleak erdigunean kokatuz.
3. Eusko Legebiltzarrak Hezkuntza Sailari eskatzen dio programa hori berreskuratzeko proposamena aurkez dezala hilabeteko epean, 2019/2020 ikasturtean ezartzen has dadin".

GRUPOS PARLAMENTARIOS NACIONALISTAS
VASCOS Y SOCIALISTAS VASCOS

ENMIENDA DE TOTALIDAD

"El Parlamento Vasco insta al Departamento de Educación del Gobierno Vasco a:

1. Seguir promoviendo la herramienta Irakurgunea, que recoge el plan lector, con la finalidad de impulsar el desarrollo de la competencia lectora y fomentar la afición de todo el alumnado por la lectura, adecuándose a las nuevas necesidades y demandas de la sociedad.
2. A seguir apostando para que dichos planes, ubicados en el proyecto lingüístico del centro, impliquen a la comunidad educativa en su



eta, bereziki irakasleak, izan ere, funtsezko parte dira irakurrizko ulermenerako jarduerak errazteko ikastetxeetako ikasgeletako programazioetan.

3. Jarrai dezala Berritzeguneetatik ikastetxeei eta hezkuntza-komunitateari aholkularitza eta prestakuntza ematen, beren testuinguru eta premietara egokitutako irakurketa-planak diseinatu eta ezar ditzaten.
4. Jarrai dezala eremu horretan praktika onen trukea ahalbidetzen Partekatuz Ikasi proiektuen bidez".

totalidad y en particular a todo el profesorado ya que es la pieza fundamental para facilitar actividades de comprensión lectora en sus programaciones de aula de los centros.

3. A continuar asesorando y formando desde los Berritzeguneak a los centros y a la comunidad educativa para que diseñen e implementen planes lectores adaptados a su contexto y necesidades.
4. A seguir facilitando el intercambio de buenas prácticas en este ámbito a través de los proyectos Partekatuz Ikasi".
